

**EITB-REN ETORKIZUNAZ
SOZIOLINGUISTIKAREN TALAIATIK**

Kike Amonarriz Gorria
2018ko azaroaren 12a

Sarrera

Ezertan hasi aurretik, nire eskerrak eman nahi dizkizuet EHBilduko batzordekideei nire izena proposatzeagatik eta Batzordekide guztiei, proposamen hori onartu eta bertan nire iritzia ponentzia honetan aurkezteko eskaini didazuen aukerarengatik.

Batzorde honek bere buruari eman dizkion bost egitekoen artean, honako hau da hirugarrena: *“Bere eskaintza errealitate soziolinguistiko berrira egokitzea, eta orobat aldaketa eta erabilera teknologiko berrietara”*.

Gaurko nire ekarpena puntu honetan zentratuko da, laguntzarik gehien beronetan eman dezakedala iruditzen zaidalako.

1.- EiTBrn funtzio soziolinguistikoa Sorrera Legearen arabera

Gogora dezagun zertarako sortu zen Euskal Irrati Telebista, maiatzaren 20ko 5/1982 Sorrera Legeak bere Atariakoan adierazten duen bezala:

“Lege honen gai diren gizarte-adierazpideak, herritar euskaldunak argipide eta politikan eskuhartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eraten dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren suztapen eta zabalkundearekiko gure erapidetzaren oinarrizko lankidetasun-tresna direnez ere, euskeraren suztapena eta zabalkundea bereziki kontutan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia-Elkarte honetako herritarren eskubide eta iareipideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri.”

Idea hauek 3. artikuluan gehixeago zehazten dira:

- “c) Berdintasun-sortarauarekiko, politika, erlijio, gizarte, kultura eta linguistika-aniztasunarekiko begirunea”*
- h) Kulturaren eta euskeraren suztapena, euskera erabiltzearen xedetarako, oinarrizko egitarau sortarauak ezarriz, orotariko eskeintza mailan Elkarte Autonomiadunean euskeraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik”*.

Legeak, beraz, funtzio hauek esleitu zizkion EiTBrn hizkuntza normalizazioari dagokionez:


- Irrati-telebistetako emankizunen oreka lantzea hizkuntzari dagokionez.
- Programazio osatu bateko edukiak euskaraz eskaintzea euskal komunitate osoari.
- Euskararen normalizazioa sustatzea, bereziki, hezkuntzan eta euskal kulturaren egiten den lana lagunduz eta sustatuz.
- Euskal gizartearen aniztasun linguistikoa aintzat hartzea.

Helburu horiek indarrean dirautela esango nuke, baina gaur egungo errealiterara egokitutako irakurketa behar dutela. Horretaz ohartun da Batzorde hau bera, sorreratik beretik, bere buruari jarri dion eginkizuna EiTBrn eskaintza errealitate soziolinguistiko berrira, eta orobat aldaketa eta erabilera teknologiko berrietara egokitzea izan baita.

2.- EiTb sortu zeneko eta egungo testuinguru soziolinguistikoak

2.1.- EiTb sortu zeneko egoera

1981ean egin zuen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Orokorrek lehen Mapa Soziolinguistikoa. Hona Erroldako eta Zentsuko datuetan oinarriturik, joan den mendeko azken bi hamarkadetako EAEko euskararen ezagutza mailaren bilakaera:




(Iturria; EUSTAT)

Frankismo garaian euskarak nozitu zituen debekuek eta bazterketek eragindako galera-prozesua iraultzen eta euskararen biziberritze prozesua hasten zen urteak ziren haiek :

- EiTb sortu zen urtean, 5-24 urte bitarteko gazteen artean euskaldunak %20 inguru ziren.
- EAEn biztanleen bostena zen euskalduna.
- Zaharrenak ziren ezagutza-mailarik handieneko adin-taldea.

Irakaskuntzari dagokionez, B eta D eredu-tako ikasleak ez ziren %25era iristen derrigorrezko hezkuntzan. Hona, bi hamarkada haietako ikasleen banaketa ikastereduen arabera:



(Iturria; EUSTAT eta Hezkuntza Saila)

2.2.- Egungo egoera: euskara bidegurutzean eta fase aldaketa.

Askok erabili izan dugu bidegurutzearen irudia, euskarak eta euskal komunitateak bizi dugun momentu soziolinguistikoa irudikatzeko. Bidegurutzea eta fase-aldaketa. Ideia hauek zabaltzen hasi ginenetik, adostasun handia sumatu da euskalgintzan beraien inguruan eta gehienak bat gatoz etapa bat amaitzen eta beste bat zabaltzen ari dela baieztatzerakoan.

Bidegurutzean gaude hainbat faktorek bat egin dutelako garai berean. Besteak beste:

- a) Aldaketa sozio-politiko-ekonomiko handiak gertatu dira munduan XXI. mendearen hasiera honetan. Aldaketa hauen ondorioz, mundu osoko hizkuntzetan eta hizkuntza komunitateetan eragina duten faktore berriak edo berrindartuak agertu dira:
 - Globalizazioaren eta krisi ekonomikoaren eraginez, ingelesa mundu osoan hedatu da. Gaur egun, euskal etxe gehienetan ingelesa ere “gurea” da.
 - Krisi ekonomiko-politikoek eragindako migrazioak: euskal gazteen emigrazioa Euskal Herritik kanpora eta atzerritarren immigrazioa Euskal Herrira.
 - Pertsonen mugimendu eta leku-aldaketa gero eta ohikoago eta errazagoak: turismoa, aisialdia, ikasketak edo lana direla medio.
 - Digitalizazioak eta komunikazio sistema berriek, komunikazio moduak eraldatu, erabilera hizkuntzak ugaltu eta “kode informalak” ohiko bihurtu dituzte.

Faktore hauen guztien eragina biderkatu egin da azken urteotan eta hizkuntzekiko gure jarrerak, beharrak eta ikuspegiak aldarazi egin dituzte, batez ere belaunaldi gazteenak.


- b) Alor sozio-politikoan funtsezko aldaketak gertatu dira Euskal Herrian: ETArekin amaiera, agente sozio-politiko berrien agerpena, Iparraldearen instituzionalizazioa, Nafarroan gobernu-aldaketa... Egoera politiko berri honek, fase berri bat zabaldu du euskal politikagintzan eta baldintza eta aukera berriak sortu ditu, baita hizkuntzaren alorrean ere.

c) Baina bereziki, hizkuntzarekin lotura duten faktoreak direla medio hitz egiten dugu “bidegurutzea”z:

- EAEn, 20 urtez azpikoetan ulermenaren unibertsalizaziora iritsi gara, salbuespenak salbuespen. Ulertzen ez dutenak %3,3 besterik ez dira. Herritarren euskara maila, gainera, handitzen doa eta hamarkada bat barru 30-35 urte azpiko ia populazio guztiak euskara ulertu, bederen, egingo du.

Adin-multzorik euskaldunenak haur eta gazteenak dira eta gazteen artean euskaldunak 4tik 3 dira, besteen artean gehienak ulertzeko gai direlarik.

- Ikasleen gehiengo nabarmena B eta D ereduetan ari da ikasten.
 - Haur Hezkuntzan %95 (D), %3 (B) eta %2 (A)
 - Lehen Hezkuntzan %88 (D), %9 (B) eta %3 (A)
- EHU eta MU unibertsitateetan matrikulatutako ikasle gehienak euskaraz ari dira ikasten (ez dut beste unibertsitateetako daturik).



(Iturria; EUSTAT eta Hezkuntza Saila)


Horretaz gain:

- Hausnarketa garaia bizi izan du eta du euskalgintzak: Euskararen Aholku Batzordearen “*Eta hemendik aurrera zer?*” hausnarketa-prozesua eta txostena, *Topalekuaren “Berrikasi eta berrikusi”* agiria, Hizkuntza Eskubideak bermatzeko Donostiako Protokoloa, Eusko Ikaskuntzaren Batzarreko e5 egitasmoa... edo EiTbren erreforma aztertzen ari den Ponentzia hau berau. Hizkuntzen inguruko planteamenduak garai berrietara egokitu behar diren premia nabarmena da.

- Euskalgintzaren etapa honen lehen belaunaldi aldaketa ari da gertatzen. 80ko hamarkadan sortutako erakundeak 35-40 urte ari dira betetzen eta EiTb bezala, berauetan lanean hasitako lehen belaunaldiko partaideak jada jubilatzen hasi dira (EiTb, Euskaltegiak, Irakaskuntza...). Bizitza-ziklo oso bat osatu dute eta sorrera-urteak ezagutu ez zituen belaunaldi berri bat ari da inkorporatzen.
- Euskalgintza instituzionaleko nahiz sozialeko eragile desberdinen arteko elkarlanerako borondatea egitasmo zehatzen inguruan gorpuztu eta gizarteratu da. 2017ko Korrikan, Irungo Santiagoko zubian eragile instituzional nahi sozialen ordezkariak batera egin zuten kilometroko argazkiak zabaldu zuen bideak, segida indartsua izan du, besteak beste, Euskaraldiaren antolaketan. Harreman-mota eta praktika berri batzuen agerpide esanguratsuak dira biak.

Datu positiboago horiekin batera, ordea, euskara “*impasse*” egoera batean sartu den zantzuak ere agertu dira, batez ere, erabilerarekin lotutako indizeetan:

- Erabilerak ez du gora egin azken urteotan.



- Etxeko erabilera mantendu egin da eta arnaguneetan atzera egin dugu.
- Administrazioan, euskararen ezagutzak eta erabilerak aurrera egin badute ere, orokorrean ez da hautsi erdarazko funtzionamenduaren inertzia.
- Ikus-entzunezkoen esparruari dagokionez, hizkuntzen arteko desoreka areagotu egin da. Ramon Zallok zioen bezala (Jakin 194-195, “*Euskal telebistagintza*”) “*komunikabideetan euskarak duen presentzia, hizkuntza mantentzeko eta garatzeko batezbestekoetatik oso urrun dago. (...) Euskal kulturak eta ahotsak ez dituzte euren muga fisikoak ia gainditzen*”.

Faktore eta datu horiek adierazten digute bidegurutze batean gaudela. Alegia:

- Edo lortzen dugu euskararen ezagutzaren unibertsalizaziotik gertu dauden belaunaldi gazte hauek hurrengo urteetan euskararen erabileraren aldeko urrats sendoak ematea, eta orduan, normalizatuta dauden hizkuntzen norabidean abiatuko gara...
- Edo ezagutzaren unibertsalizaziotik gertu dauden belaunaldi hauek, ez badituzte nabarmen hobetzen gaur egun ditugun erabileraren indizeak, beren seme-alabek ikusiko dute guraso guztiek badakitela euskaraz, baina ez dutela egiten, eta galdetu egingo dute zertarako ari diren ikasten gurasoek ere erabiltzen ez duten hizkuntza bat. Eta hori Irlandako bidea da, non gaelikoa ofiziala izan arren, erabileraren sozialetik desagertze bidean dagoen eta transmisioa galtzear.

Beste era batera esanda: lehen aldiz gure historian, nagusiki D ereduan ikasi duen lehen belaunaldia ari da integratzen lan-munduan eta familiak osatzen. Eta belaunaldien arteko talka ari da gertatzen: gehiengoan euskaldunduta datorren belaunaldi bat, erdaraz funtzionatu ohi duten belaunaldi zaharragoen eskematan ari da integratzen. Baina, hurrengo belaunaldia euskaraz biziko bada eta lana euskaraz egingo badu, baldintzak belaunaldi helduago eta erdaldunagoek eskaini behar dizkiegu, inertziak puskatuz, eta erabilerarako baldintzak sortuz eta aukerak emanez.

Horixe da, beraz, bidegurutzea: edo gaurdanik hasita, hurrengo hamarkadetan normalizazio prozesua azkartzen da ala ghetizazio prozesura goaz. Horregatik diogu euskararen erabilerari dagokionez, jauzi kuantitatibo-kualitatiboak emateko beharra-aukera dagoela eta egoera soziolinguistikoa aldatu denez, azken urteotan sortutako inertzia asko astintzeko unea dela.

2.3.- Euskararen erreferentzialtasuna

Munduko 7.000 hizkuntzak 0tik 10erako eskala batean jarriko bagenu hiztun-kopuruaren arabera ordenatuta, euskara 9tik gora egingo litzateke.

- 2016ko mapa soziolinguistikoaren eta matrikulazio-datuen arabera, euskal hiztunak milioi bat inguru gara.
- Ethnologue erakundearen arabera, milioi bat hiztun baino gehiago dituzten hizkuntzak 300-400 inguru direnez, euskara, hiztun gehien dituzten hizkuntzen %10ean dago.
- Euskara 31.postuan dago, Wikipedian argitaratutako artikulu kopuruaren araberrako hizkuntzen rankingean, grezieraren, hebraitarren edo esloveniarren aurretik.
- Euskara da, munduan, telebista eta irrati kateak dituen hizkuntza gutxitu, gutxietako bat.

Horregatik guztiagatik, munduko hizkuntza gutxitu guztien artean, euskara da erreferentzia nagusienetako bat. Horren froga dira, urtero-urtero, hizkuntzaren berreskurapenean izan dugun esperientzia ezagutzera eta aztertzerako datoen beste hizkuntza komunitateen bisitak.

Hemen lortzen ari garena oso leku gutxitan lortu da. Horregatik, euskaldunok badugu erantzukizun erantsi eta eder bat munduko beste hizkuntza komunitateei begira: euskararen normalizazio prozesua arrakastatsua izan dadin lortzea, munduan hizkuntzen biziraupenaren eta normalizazioaren alde borrokan ari diren beste herrientzat, bide erakusle eta eredu izan dadin.

2.4.- Euskararen garapenak izango dituen baldintzak:

Aurrera begira euskarak izango duen bilakaera aurreikusterik ez badugu ere, edozein egoera edo kasutan, prozesu hori baldintzatuko duten errealitate ekidinezin batzuk aurreikus genitzake:

- Euskarak eta euskal komunitateak ekoizpen indar mugatua izango dugu. Euskal herritar guztiek euskara jakin arren, ez ginateke inoiz lau milioi baino gehiago izatera iritsiko. Hiztun kopuru honek, ikus-entzunezkoen esparruan, esate baterako, ekoizpen aukera interesgarriak, baina mugatuak eskaintzen ditu.
- Belaunaldi bakoitzak erabakiko du euskara transmitituko duen eta zein neurritan erabiliko duen.
Hurrengo belaunaldiak eleaniztunak izango direnez, baldintza sozio-politiko-ekonomikoen arabera erabakiko dute euskara transmititu ala ez, eta zein mailatan, noiz eta nola erabili.
- Inertzia beti erdaren aldekoa izango da.
Euskara erabili eta euskaraz sortzea, hautu baten ondorio izango da.
- Hezkuntza ez da nahikoa izango, hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko.
Hurrengo belaunaldiei begira euskararen etorkizuna, gertuko harreman esparruez gain, neurri handi batean, aisialdian, komunikabideetan eta lan-munduan jokatuko da.
- Euskarak, bizirauteko eta transmisioa bermatzeko, “arnasguneak” beharko ditu; alegia, euskara, erabilera hizkuntza nagusia edo bakarra izango den eremu sozio-funtzionalak.

2.5.- Euskaraldia, EiTb eta bidegurutzea

Euskaraldiak berrikuntza handiak ekarri ditu, hizkuntza politikaren alorrera. Gogora ditzagun bere helburuak eta ezaugarri nagusiak:

- Hizkuntza-ohituretako inertziak puskatu egunerokoan eta euskararen erabilera sustatu, “Ahobizi” edo “Belarriprest” rolak desberdinez:
 - Ahobizia: euskaraz dakiten eta ulertzen didaten guztiei euskaraz egin, eta ezezagunei lehen hitza euskaraz; hizkuntza aldatzeko eskatzen ez didaten bitartean euskarari eutsiz.
 - Belarriprest: besteek zuri euskara egin diezazuten aukera eskaini, duzun mailaren arabera euskaraz edo erdaraz erantzungo duzularik.
- Hizkuntza-ohiturak aldatu ahal izateko herritarrak ahaldundu eta erreferentzia praktikoak eskaini.
- Eragile instituzional eta sozialen arteko elkarlana.

Euskaraldiak babes zabala jaso du euskal gizartean. Besteak beste, Legebiltzarreko alderdi guztien babesa jaso du, eta baita EiTbrena ere.

Aurrera begira, ordea, Euskaraldiaren planteamenduak interpelazio zuzena egiten dio EiTbri. Izan ere, honako hau baita gaur egungo egoera:

- EiTbko profesional gehienak (baita ETB2 edo Radio Euskadin ere) euskaldunak dira edo euskaraz ulertzeko gai, eta inkorporatuko diren profesional berriak hizkuntza aldetik guztiz prestatuak izango dira.
- 20 urtetik beherako euskal herritar (ia) guztiek dakite euskaraz (“Belarriprest” potentzialak dira) eta gehienak euskaraz hitz egiteko gai dira (“Ahobiziak” izan daitezke).
 - Gero eta herritar gehiago dira, hitz egiteko zailtasunak izan arren, ETB1en parte hartzeko aukera dutenak.
 - ETB2ko ikusleen artean euskaldunak eta elebidun hartzaileak gehiengoa dira.

Eta testuinguru honetan planteatzen da bidegurutzea, baita EiTbrentzat ere:

- Gaurko telebista-ereduak modu egokian erantzuten al die Sorrera-Legeak zehazturiko helburuei eta dugun errealitate soziolinguistikoari? Nire iritzian, erantzuna ezezkoa da eta aldaketa sakonak behar dira.
- Nola islatu behar da Euskaraldiaren filosofia EiTbn? Nola erakutsi EiTbren bidez hizkuntza ohituren aldaketa; alegia, ahobiziek euskarari eustea ahal duten guztietan eta Belarriprestak euskaraz entzuteko prest egotea? Bada, portaera horiek modu praktikoan erakutsi ahal izateko, EiTbk egokitzapen sakonak egin behar ditu.

3.- EiTBen egokitzapenerako eta berdefinizioarako proposamena

3.1.- Abiapuntua

Lehenik eta behin EiTb, aspektu askotan, euskararen normalizazio-prozesuan eragile garrantzitsua eta ezinbestekoa izan dela nabarmenduko dut.

- Euskara estandarra zabaldu du. Euskara hizkuntza normal bilakatu du.
- Erreferente sozial eta kultural komunak indartu ditu.
- Euskarazko ekoizpenak posible egin dituen azpiegitura ezinbesteko bat izan da, eta inguruan industria bat sortu du eta telebista egiten dakiten lan-taldeak.
- Profesional multzo handi bat lanean euskaraz jarri du eta proiektu komunikatiboak euskaraz garatu nahi genituenoi, lanerako aukera eskaini digu.
- Euskarari mundua zabaldu dio eta euskara mundura ere zabaldu du.
- Asmatu du programa askorekin. ETBk programa on asko egin ditu.

Baina Sorrera Legeak EiTberri esleitutako helburu linguistiko eta soziolinguistikoak, gaur egungo egoeran bete ahal izateko, EiTb birdefinitu egin behar ditu bere eredia eta bere oraingo eskaintza eta funtzionamendu-eskema. Birdefinizio horri begira, 3 abiapuntu zehaztuko ditut:

- EiTb sortu zenetik, telebista eta irrati-eskaintzak ezagutu duen bilakaera eta zabalkundeak, are gehiago handitu du erdarazko eta euskarazko eskaintzaren arteko aldea. EiTb da, bere neurri apalean, Ramon Zallok “*diglosia digitaleko arrisku*” gisa definitzen duen desoreka hori gutxitu dezakeen eragilerik garrantzitsuen.
- Krisi ekonomikoaren ondorioz, aurretik zeuden baliabide mugatuak are gehiago urritu dira. Baliabide horien banaketa linguistikoa berraztertu egin behar da.
- ETB1 eta ETB2ren arteko banaketa linguistiko-funtzionalaren gaur egungo eredia mantenduz gero, euskararen egoera subalternoa iraunkortu egingo da. Ezinbestekoa da, beraz, bai Legea eta bai EiTb bera (egitura, funtzionamendua eta eskaintza) egoera berri honetara egokitzea, aipatu banaketa linguistiko-funtzionala gaindituz.

3.2.- Herritarren iritziak

Gaiari buruz, oso datu interesgarriak eskaini dizkigu 2018ko ekainean Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak burutu duen “Hedabideak-EITB” 67. Soziometroak.

Otik 10erako eskala batean, medio desberdinek euskara sustatzen zenbat laguntzen duten galdetuta, normala den bezala, ETB1ek, Euskadi Irratiak eta Gazteak atera dituzte notarik altuenak (8,4 – 8,0 eta 7,9). Radio Euskadik (6,2) eta batez ere ETB2k (5,2), ordea, nota eskasak atera dituzte. Alegia, herritarrek ere ohartzen dira medio hauek ez dutela Legeak ezartzen dituen helburuak betetzen laguntzen. ETB2ren 5,2ak aldaketa sakon baten premia azalazten du, eta Radio Euskadiren 6,2ak, hobekuntzarako tartea ematen badu ere, euskara eta euskal kultura ikusarazten eta gizarteratzen azken urteotan egin duen hobekuntza nabarmena herritarrengana ere heldu dela erakusten digu.

Arazoa beste era batera planteatuta, eta gizartean dugun adin-multzorik euskaldunena aintzat harturik, galdera hau egin geniezaioke gure buruari: une honetan, eta erakunde osoa hartuta, EITB nora ari da bultzatzen gazteak: euskarara ala erdarara? Edo zein programa edo eskaintza ari dira gazteak euskarara bultzatzen eta zeintzuk erdarara? Erantzunak markatuko digu aldaketarako esparru nagusia. Egoera hori da irauli behar duguna.

Soziometroaren datuek egoera hau berretsi egiten dute, gazteek ere (18-29 urte bitartekoak) kalitate handiagokotzat dute ETB2, ETB1 baino, eta dezente gehiago dira ETB1 ikusten ez dutenak ETB2 ikusten ez dutenak baino, nahiz eta, adin multzo hau izan ETB1 gehien ikusten duena eta kalitate-indize handiena ematen diona.

18-29 urteko gazteak eta EITBko kateen kalitatea			
	Handia/Nahikoa	Gutxi/Batere ez	ED/Ez du ikusten
ETB1	42	23	35
ETB2	52	27	21

3.3.- Epe motz-ertainerako estrategiak

Ibilbidea prestatu behar da, epe motz eta ertainera begira, progresiboki eta etapak ongi markatuta, euskarazko medioak lehenetsi eta euskara EITBren hizkuntza nagusia izan dadin:


- EITBren ardatza eta lehentasuna euskarazko medioak izatea (ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Gaztea) medioen arteko osagarritasuna landuz.
ETB1, historikoki izan duen bigarren mailako posiziotik atera eta lehentasunezko batera eraman behar da. Testuinguru soziolinguistikoko eta soziopolitiko honetan lortzen ez badugu, egoera subordinatu hau iraunkortzeko arrisku bizia dago. Hauxe da inertziak puskatzen hasteko momentua.
- Kateen arteko banaketa linguistikokoaren eskema gainditzea:
 - Euskarazko hedabideak (ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Gaztea) euskarazko arnagune eta espazio gisa mantendu.
 - Hala ere, eta beti ere proportzio mugatuetan, ETB1en, euskara ulertu, baina erdaraz egingo duten “Belarriprest”ei lekua eman.
 - Erdal hitzunen presentzia kualitatibo eta neurtuari ere atek zabalduz (elkarrizketatu garrantzitsuak, EHTik kanpoko adierazpenak, kirolari erdaldunak,...). Kasu horietan bikoizketa edo azpidatziak erabil daitezke.
 - ETB2, ETBSat eta Radio Euskadi nabarmen elebidundu, euskaldunen eta euskarazko adierazpideei eta edukiei leku gehiago eskainiz.
 - Euskara, euskal kultura eta euskaldunak gehiago ikusarazi behar dira ETB2n eta Radio Euskadin (azken honetan, urrats nabarmenagoak eman dira alor honetan).
 - ETB2ren kasuan, grabaturiko programa edo atal guztietan bermatu daiteke euskararen presentzia, arazorik gabe, azpidatzien edo bikoizketaren bidez:

- Informatiboetan, gaur egiten dena baino nabarmenago.
 - Grabaturiko entretenimenduzko saioretan euskaldunak agertzen direnean.
 - Realityetan euskarazko praktika linguistikoak bultzatuz eta modu normalizatuan erakutsiz.
 - Euskarazko edukiak eman (film, serie, emanaldi...) azpidatzita edo bikoiztuta.
- Guzti hau, gaur egungo EiTbren ikus-entzule kopuru orokorreari eutsiz edo hobetuz, baina euskarazko eskaintzarako “*trasbasea*” eraginez.
 - Elkarbizitza linguistikoaren, eleaniztasunaren eta euskararen biziberritzearen aldeko diskurtsoak zabaltzea programazio guztietan, baita euskaraz ez dakien populazioari begira.
 - Hizkuntza normalizazioaren aldeko JARRERA AKTIBOAK bultzatu.
 - Bizikidetzeta linguistikoaren BALIOAK eta euskararen berreskurapenaren aldeko DISKURTSOAK hedatu.
 - Herritarren aurrean JARRERA ASERTIBOAK agertu eta Euskaraldiak bultzatzen dituen HIZKUNTZA PORTAEREN ispilu eta erakustoki izan, hizkuntza ohiturak aldatzeko EREDU eta ERREFERENTZIAK emanez.

3.4.- Ondorioak programazioan

Epe motzean, ETB1en eta ETB3ren programazioa osatu eta indartu egin beharko lirateke:

- ETB1eko informatiboei, ETB2ko informatiboen garrantzi eta iraupen berberak ematea, eta ordutegian dauden desoreka nabarmenak konponduz.
- Soziometroak agerian utzi du desoreka hau: %20k esan du albistegirik onenak ETB2renak direla, %5ek ETB1enak, eta %5ek ETBrenak oro har, nahiz eta ETBren albistegien aldeko jarrerarik nabarmenena, alde handiz, euskaldunen artean eman.



- ETB1eko arratsaldea indartu eta baliabidez hornitu. Desoreka nabarmena dago euskarazko eskaintzaren eta erdarazkoaren artean.
- Fikzioaren beharra nabarmena da. Bai bertan ekoiztutakoa, eta baita kanpoko fikzioa edo filmak (bikoiztuta edo azpidatzita). “Merli”ren kasua adibide interesgarria da.
- ETB3ko programazioa berritu eta sustatu. Haurren artean, erreferentzia berriak sortu behar dira, beraien arteko praktika linguistikoetan eredugarriak izango direnak eta euskarazko kultur produktuen kontsumoari bidea zabalduko diotenak.
- ETB1ek eduki sektorialagoak ere eskaini behar ditu (Ad: *Teknopolis*). Edozein saiok dituenetatik aparte, programa horiek, audientzia ez beste helburuak dituzte, edo: eragin sektoriala, hezkuntzarako euskarriak...

Aldaketa-prozesu honen inflexio-puntua informatiboek programazioan duten kokapen-aldaketak markatuko du. Gaur egun, ETB2ko gaueko informatiboak du zentraltasun osoa eta bi kateetako prime-timeko programazioa horren arabera antolatzen da, ETB1eko audientziaren jarraikortasuna kaltetuz (ordu horretan eta “Eguraldia”ren ondoren ETB1en errepikatutako saio asko programatu ohi da).

3.5.- EiTBen birmoldaketa eta edukien ekoizpena

Toni Mollà soziolinguista eta Canal9ko hizkuntza arduradun ohiak esan ohi duen bezala, gure hizkuntzen etorkizuna, neurri handi batean, hiztunek hizkuntza horietan “eskuragarri” izango dituzten zerbitzu eta produktuen kopuruaren eta kalitatearen arabera izango da.

Euskararen ikuspegitik, beraz, lehentasun osokoa da ahalik eta ikus-entzunezko eduki gehien ekoiztu eta ikus-entzuleen eskuragarri jartzea. Hizkuntzaren garapenerako, gainera, garrantzi berebizikoa dute entretenimenduzko programek, berauen bidez euskara sustatu, erabilera indartu, erreferentzia linguistikoak hedatu, kultur edukiak gizarteratu eta hizkuntzaren funtzio ludikoa indartzen delako.

Dakigunez, EiTb da, eta izango da, euskarazko ikus-entzunezko edukien ekoizle, motor eta eragilerik nagusia eta fase berri honetan, beste hizkuntzetako eskaintza erraldoia orekatze aldera, EiTBen hainbat eskaintza eta programa-mota euskaraz egin beharko lirateke beti (salbuespenak salbuespen), eta egoki den kasuetan, ondoren bikoiztu edo azpigitulatu: serieak eta fikzioa oro har, haur eta gazteentzako programak, dokumentalak edo filmak, esate baterako.

ETBko proiektu berezien arduraduna den Itziar Azpeitiak, DIGITARO – Euskarazko komunikazioaren nazioarteko II. Biltzarrean aurkeztu zuen “Telebista-entretanimendua eta Euskal Telebista; hedabide publikoa, aro digitalean” ponentzian ere entretenimenduzko programen garrantzia azpimarratu zuen EiTBen Legeak ezartzen duen euskararen eta euskal kulturaren sustapenari begira:

“Euskarazko entretenimenduzko telebista formatu erakargarrien ekoizpena eta zabalkundea, nortasun adierazgarriak modu egokian integratzen diren heinean, oso baliabide aproposak eta faktore eraginkorrak izan daitezke (...) ezinbestekotzat ere jo daitezke”.

Azpitulua eta bikoizketa noiz eta nola erabili, bereziki aztertu eta erabaki beharko den aspektua izango da. Baina garbi dagoena da, gaur egun baino gehiago erabili beharko direla, kate guztietan.

3.6.- Beste eragileekiko harremana sendotu

Bide hau modu sendoan jorratu ahal izateko, oso komenigarria litzateke, EiTbK, harremanak sendotzea eta indartzea hainbat norabidetan:

- EiTb barruko eragileak: langileak, sindikatuak, ekoizleak, profesionalak et aktoreak...
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekiko lan koordinatua.
- Hezkuntza Sailarekiko harremana eta EHU eta beste Unibertsitateekiko lankidetzak.
- Euskal Herriko beste administrazioekiko harremana.
- Euskarazko hedabideekiko harremanak. Osagarritasunerako esparruak zabaldu euskaraz ari diren beste komunikabideekin, bereziki, tokian tokiko irrati-telebistekin.
- Kultur eragileekiko lankidetzak.

Kolaborazio esparru horiek zabalduz hainbat helburu lor daitezke: ekoizpen kostuak jaitsi, eragina biderkatu, hiztun-komunitatea trinkotu, profesional-sarea hedatu eta ahots-aurpegi eta hizkera diferenteak ohiko emisioetan integratu.

Alde honetatik, eta Jon Sarasuak defendatu izan duen bezala (Jakin 194-195, “*Euskal telebistagintza*”), Euskal Telebistaren etorkizuna euskal telebisten, irrati eta euskarazko esparru komunikatiboaren testuinguruan eztabaidatu eta arautu beharko genuke. Etorkizun motz-ertainean esparru horretan Euskal Irrati-Telebistak leku zentrala izango badu ere, desiragarria eta beharrezkoa litzatekeelako eskaintza zabaltzea eta berak dioen bezala “*multipolarragoa*” izatea.

3.7.- Aldaketa prozesuaren komunikazioa eta sozializazioa

Helburu hauek eta aldaketa prozesu hau gizarteratu eta ondo komunikatu behar dira, herritarrek ere partaide eta protagonista senti daitezten, eta onar dezaten. Baina esan liteke, Soziometroak azaldu bezala, gizartea ere prest dagoela aldaketarako. Izan ere, nahiz eta galdera batean, kateen arteko banaketa linguistikoaren aldeko jarrera maioritaria izan (%84 alde eta %5 aurka), ETB2n euskara gehiago erabiltzearen aldekoak ere –azpitoluekin- gehiengoa dira (%44 alde eta %41 aurka), albistegietan adierazpenak nahi diren hizkuntzan egitea onartzen da (%67 alde eta %16 aurka), eta ETB2-n guztiz edo neurritz euskarazko saioak ematearen aldekoak %43 dira eta aurkakoak %41 .

Kualitate lantaldeak 2018ko apirilean egindako “*Ikus-entzunezkoen Euskal Zerbitzu Publikoari lotutako Aurretiko Azterlan Kualitatiboa*”ren emaitzek ere antzeko egoera marraztu digute: herritar gehienek uste dute EiTbK euskara bultzatzeko helburua betetzen duela, hainbat kanal euskara soilean dituelako. Baina hori esanda, ñabardura garrantzitsuak erantzen dituzte:

- Helburu hori, batez ere haurren (ETB3) eta gazteen kasuan (Gaztea Irratia) betetzen da, baina beste adin-taldeak eta kateak ez dira zehaztasunetan aipatzen (Ezta ETB1 ere).

- Ikus-entzule euskaldun zaharrek ETB2n “arlotu euskaldunari” presentzia handiagoa ematea eskatu dute, eta programa erakargarriak eta eragin sozialekoak euskarazko premi-timerako.

Herritar gehienek jarrera da daukaguna bere horretan uztea, beste aukerarik planteatu ez zaielako, edo aldaketen beldur direlako. Baina erantzun “kontserbadore” hori eman orduko, gehienek ñabardura garrantzitsuak egiten dituzte, funtsean, emandako erantzunarekin kontraesan sartzen direnak, aipatutako eredu aldatzea eskaintzen baitute.

Baina azpimarratu behar duguna da, apustu hau etorkizunerako apustua dela, eta gaur egungo errealitateari baino datorkigunari begiratu behar diogula aldaketa hauek planteatzerakoan. Alegia:

- Euskal gizarte gero eta euskaldunagoa, eta beraz, aldaketa hauen aldekoagoa izango dela.
- Kate desberdinetan banatutako eskaintza “bertikal” batetik, sarean nahierara aukeratu daitekeen eskaintza “horizontal” batera joango garela gero eta gehiago.
- Arriskatzeko eta esperimintatzeko garaia ere izango dela. Era honetako aldaketa-prozesu bat bizi izan duen telebista publiko bakarra izan daitekeelako gurea. Prozesu honen inguruan ikerketa eta jarraipen etengabeak ere ezinbestekoak izango dira.

Esan gabe doa, horrelako prozesu bat ahalik eta indar sozio-politiko gehienek sostenguekin egin beharko litzatekeela. Uste dut, deskribatu dugun testuinguru sozio-linguistiko honetan, EITBren inguruko hizkuntza-eskemaren aldaketari begira, Euskaraldiaren inguruan lortu den kontsentsu sozio-politikoaren antzeko bat lortu beharko litzatekeela.

4.- EITB, euskararen arnagune

Barne-funtzionamenduari dagokionez, EiTbK “arnagune funtzionala” bilakatu behar du, alegia, nagusiki eta “defektuz” euskaraz funtzionatuko duen enpresa. EiTbren langileen hizkuntza ezagupenak eta datozen urteetan ezagutuko duen bilakaerak horretarako aukera ematen baitute.

EITB TALDEA OROTARA		
postuaren HE	langile kopurua	gaindituak
B2	144	128
C1 (EGA)	514	431
C2	407	328
GUZTIRA	1065	887

EITB Taldeko hizkuntza-egoera 2017ko martxoan

EiTB izan daiteke, munduan euskaraz funtzionatuko duen telebista-kate nagusi bakarra. Erantzukizun hori ere badu EiTbK. Erakunde eta enpresa gisa duen indar ekonomikoa, ekoiztetxe, hornitzaile, eta oro har, sektorean eragiteko erabili behar du; euskara “irradiatu” eta euskararen erabilera “eragin” egin behar du inguruan.

Euskara Plan bati ekin zion euskal administrazioaren azken erakundeetako bat izan bazen ere (2013an ekin zion I. planari eta 2017an II.ari), aukera ezin hobeak ditu horrelako erronka bati heltzeko, Euskara Zerbitzuak landutako 2013-2016ko Euskara Planaren emaitzek erakutsi bezala:

- Langileen %83k du dagokion hizkuntza eskakizuna, eta erdiek EGA edo goragoko maila.
- Inkorporazio berrien ia % 100ak egiaztatu du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna.
- Eitbneteko langileen % 100ek lortu du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna.

Euskaraldiak planteatzen duen hizkuntza-ohituren aldaketa, programen prestaketa-lanetan ere aplika genezake. Gure historia gertuan ez da arraroa izan, euskarazko programen diseinua, prestaketa eta lan-prozedura nagusiak gaztelaniaz egitea. Joera hori irauli eta lortu beharko genuke, erdarazko hainbat programen prestaketa eta lan-prozedura nagusiak euskaraz izatea.

Bestalde, EiTbK euskarazko funtzionamenduaren adibide izan behar du bertaratzen diren ikusle, gonbidatu, enpresa, hornitzaile eta bisitariarentzat. Hala izan da batzuetan, baina baita ere kontrakoa askotan. EiTbK proiektatzen duen irudia eta erreferentzia oso indartsuak dira sozialki, batez ere, bisitari edo publiko bezala, Euskal Herriko eremu erdaldunenetatik datozen haur eta gazteentzat, baina baita helduentzat ere: euskaraz lan egiten den arnagune bat erakustea eta grabazioetan, bisitetan edo lan bileretan euskara normaltasunez erabiltzen dela erakustea.

Helburu hauek bat datoz EiTbren 2017-2020ko Euskara Planaren 3 ildo estrategikoekin:

- EiTbK euskaraz funtziona dezake.
- EiTbko langileek euskara enpresan normalizatzeko prozesuan inplikatzeko dira.
- EiTbK euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan.

5.- Estandarraren garapenerako bitartekorik indartsuenetako bat

Euskara batuak 50 urte bete dituen honetan, komunikabideek eredu estandarraren garapenean duten garrantzia berriro azpimarratzea dagokigu. Etorkizuneko euskara estandarraren ezaugarriak, komunikabideek markatuko dute neurri handi batean, neurri hori komunikabideon kontsumoaren araberakoa izango delarik.

EiTBk oso lerro garbia izan du estandarraren erabilerari dagokionez informatiboetan, dokumentaletan edo bikoizketetan. Euskara Zerbitzutik irizpide linguistikoak eta zuzenketa-lanak modu egokian bideratu dira.

EiTBren euskara estandarrak Euskal Herri osoa hartu behar du aintzat, eta eraikiko eta sustatuko dena estandar nazionala izan dadin, ezinbestekoa izango da Euskal Herri osoko hizkera guztien presentzia handitzea. Gipuzkoako ahotsen nagusitasuna murriztu egin beharko litzateke, atentzio berezia jarritz, gaur egun presentzia eskasa duten ekialdeko edo iparraldeko partaideengan, eta aintzat hartuz, euskara familiarik kanpo jaso duten hiztun berriak eta euskara ikasleak. Kalitate lantaldearen ikerketa kualitatiboan ere, euskaldunak ez direnek eta euskaldun berriek euskara batua erabiltzea edo bestela, azpigituluak erabiltzea eskatu dute.

Entrenimenduzko edo fikziozko programei dagokienez, nabarmena da oso eredu linguistiko desberdinak erabili direla, kasu batzuetan guztiz kontraesankorrak izateraino. Batzuetan EiTB bera izan da ekoizleak eta aurkezleak eredu estandarretik kanpoko ereduak erabiltzera bultzatu dituen (euskalki jakin batzuk, esate baterako); edo ekoizle, zuzendari edo aurkezleak beraiek erabaki dute nola hitz egingo zuten. Are gehiago, programek erabakitako irizpideak edo zuzendaritzaetik etorritakoak, eta Euskara Zerbitzuak zabalduetakoak ez dira beti bat etorri.

Urteotan ez da gaiaren inguruko barne-hausnarketa edo eztabaidarik izan eta iruditzen zait, bai eredu linguistikoaren inguruko hausnarketa eta formazioa eta formazio soziolinguistikoa landu egin behar direla profesionalekin eta gaiaren inguruko barne-hausnarketa bultzatu.

EiTBtik zabaltzen den edo diren hizkuntza ereduak “kalitate” parametroak hartu behar dituzte aintzat; ez bakarrik zuzentasunari dagozkionak; baita egokitasunari dagozkionak ere, Euskararen Aholku Batzordearen eskariz, Joxerra Garziak, Andoni Egañak eta neronek landu genuen “Euskararen Kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako” txostenean aipatzen genuen bezala. Besteak beste, hau proposatzen genuen hedabideen atalean:

“Programa edo sailen bat diseinatzerakoan, hari dagokion hizkera erabaki (...) Irizpide hori bereziki landu haur eta gazteei zuzenduriko kultur eta komunikazio produkzioan”

Helburuak eta hartzailak desberdinak diren neurrian, erabili beharreko hizkera-mota ere aldatu egin behar da, nahiz eta estandarraren parametroetan ibili. Estandarra izan da eta izango da EiTBren euskarazko eskaintzaren eredu, baina ezin da hizkera berbera erabili informatiboetan edo haurtzako programa batean, serie bateko pertsonaien artean edo umore programa batean.

Hizkuntza erregistroen laborategia eta sormen-tailerra ere izan behar du EiTbK. Fikzioa edo Gaztea Irratia, esate baterako, gune egokiak dira, kalera zabaldu daitezkeen erreferentzia linguistikoak proposatzeko. Hizkuntza normalizatueta, komunikabideek kaletik jasotzen dituzte erregistro horiek, baina hizkuntza gutxituen kasuan hainbat erregistro ez dago edo oso lokalak dira, jasan duten minorizazio-prozesuaren ondorioz. Horregatik, komunikabideak ezinbestekoak dira erabilera-mota horiek indartu eta sozializatzeko. *Goenkale*, esate baterako, bide erakusle gertatu zen lanketa honetan.

Irizpide orokorrak eman eta zuzenketa-lanak bideratzeaz gain, beraz, EiTbK esparru honetan, bestelako funtzio batzuk ere bete behar ditu, eta seguruenik, horretarako baliabide gehiago jarri. Horien artean, euskarazko erregistro informal estandarra eta erregistro kolokialak lantzea, lehentasun osokoak dira, Joxerra Garziak Berrian (2018-XI-10) zioen bezala:

“Erregistro informaleen eskasia (gabezia?) ez da gaitz arina, euskarak duen arazorik larriena baizik. Hala, bada, euskararen baitan erregistro informalak lantzeari erabateko lehentasun estrategikoa eman behar genioke”.

6.- Azken apunteak

6.1.- Konstituzioa eta Espainiako irrati-telebista publikoak

Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua honela dio:

“Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du”.

Artikulu horrek dioena aintzat harturik, esan genezake RTVE eta RNE osatzen duten medio guztien praktika antikonstituzionala dela, gaztelania ez den estatuko beste hizkuntzen presentzia beraretan hutsaren hurrengoa delako.

Medio horiek, euskarazko edukien ekoizpena eta presentzia, euskararen bisibilizazioa eta estatuko eleaniztasunaren aldeko jarrera soziala, gaur egun egiten dutena baino askoz ere gehiago sustatu beharko lukete.

6.2.- Euskal Herriko beste hizkuntzak eta gutxiengo linguistikoak

Batetik, frantsesaren inkorporazioa (eta neurri apalagoan okzitanierarena) aztertu beharko litzateke eta kofinantziakoa aztertu Iparraldeko Herri Elkargoarekin.

Bestetik, gure Euskal Herri gero eta eleaniztunago honen errealitateari erantzun ahal izateko, elkar ezagutu eta integrazio soziala bultzatzeko, beste hizkuntza eta kulturen erabilera eta transmisioa sustatzeko eta euskal herritar berri hauek gure kulturara eta hizkuntzara gerturatzeko, komenigarria litzateke etorkinen hizkuntza erabilienak inkorporatzea EiTbren emisioetara. Komunitate ugarienen berri emango diguten saio bereziak planteatu litezke beren hizkuntzetan eta euskaraz azpidatuta.

Arreta berezia, eta orain arte jaso dutena baino hobea, eskatzen dute bestalde, gorrena edo itsuena bezalako gutxiengoek. Azpidatzi horiek, bestalde, gure kasuan, oso baliabide erabilgarriak dira euskara ikasten ari direnentzat edo hobetu nahi dutenentzat.

6.3.- EAEko bestelako irrati-telebistak

Komenigarria eta beharrezkoa litzateke EAetik ari diren beste irrati-telebistek ere bat egitea euskararen normalizazio eta berreskurapen-prozesu honekin.

Laguntza publikoak, edo publizitate bidez diru publikoa jasoz gero, bestalde, beren programazioetan euskara txertatzea eskatu beharko litzaieke.

7.- Ondorioa

Lortzen baldin badugu, epe motz-ertain batean, gaur egungo inertiak eta eskemak gainditu eta euskara izatea EiTbko lehentasunezko hizkuntza eta EiTb euskararen arnagune bihurtzea, euskal gizartearen, eta munduko beste hizkuntza gutxituen aurrean erakusten arituko gara, hizkuntzak biziberritzea eta normalizatzea posible dela, euskarara erakargarriago egingo dugu eta belaunaldi gazteagoi eredu bat eskainiko diegu hizkuntza-portaerak aldatzeko.

Aitzitik, hurrengo urteetan, ez badugu aldaketa hau burutzen, euskal gizarteari adieraziko diogu, euskarak aurrerantzean ere bigarren mailako hizkuntza baztergarri bat izaten jarraituko duela, eta traba handiak jarriko ditugu hizkuntzen berdintasunaren bidean.

Inertiak gainditzeko garaia da, baita EiTbn ere.